

**ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO**

**ETA ELKARBIZITZARAKO**

**GOIERRIKO LEHENENGO PLANA**



2008ko Abenduan



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA**

Gizarte Gaietako Sailburuordetza  
*Inmigrazio Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES**  
Viceconsejería de Asuntos Sociales  
*Dirección de Inmigración*



## **AURKIBIDEA**

AURKIBIDEA .....	2
SARRERA .....	3
METODOLOGIA .....	5
PLANAREN EGITURA .....	6
ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO ETA ELKARBIZITZARAKO PLANAREN INGURUKO OINARRIZKO ABIAPUNTUAK .....	7
OINARRIZKO PRINTZIPIOAK .....	9
ESKUALDEKO GARAPEN AGENTZIAREN ETA HAU OSATZEN DUTEN HERRIEN ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK.....	11
o LEGE ESPARRUA .....	11
ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO ETA ELKARBIZITZARAKO LEHENENGO PLANAREN HELMUGAK .....	13
EBALUAKETA.....	26
o . ABIAPUNTUAREN DESKRIBAPENA .....	26
o EKINTZEN JARRAIPEN FITXA .....	27
o ESTRATEGIEN EBALUAKETA .....	28
o HELMUGEN EBALUAKETA .....	29
I. ERANSKINA .....	31
o . IMMIGRAZIO TEKNIKARIAREN FUNTZIOAK .....	32
II. ERANSKINA.....	35
o ETORKIZUNEAN GARATZEKO EKINTZAK .....	36

**Enpresa Aholkularia: Farapi S.L.**

## **SARRERA**

2003ko apirilean, Goierri eskualdeko udalerriek, Goiekik bideratuta, hausnarketa estrategiko bat martxan jarri zuten. Honela, azterketa bat burutu zen, garapen sozial, lurralde garapena eta garapen ekonomikoan eragina izan zezaketen faktoreak identifikatu eta lerro estrategikoak proposatzeko.

Honen ondorioz, 2005. urtean arlo sozialean lan egin beharreko adierazle nagusiak definitu ziren:

1. Biztanleriaren egitura eta bilakaera
2. Biztanleriaren zahartze prozesua
3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna
4. Solidaritatea eta Kohesio soziala
- 5. Immigrazioaren fenomeno**
6. Kultura, ondarea eta euskara
7. Etxebizitza
8. Enplegua eta etengabeko prestakuntza
9. Kapital soziala

Lerro hauek eredu izanik, gizarte arloan, Goierri eskualdeko 18 Udalerrien arduradun eta eragile sozialekin batera premia gehien zuten gaiak zein izango ziren erabakitzen joan zen, azkenean, immigrazioaren azterketak lehentasuna hartuz.

2007an Goierriko **Egoera Immigratorioaren azterketa Diagnostikoa** egin zen eta bertan hurrengo pausuetarako ildoak markatu ziren.

Honekin batera, oso garrantzitsua ikusi zen Goierri mailan arlo ezberdinetako eragileen artean **Harrera Sare** bat sortzea, arlo guztien arteko komunikazioa eta koordinazioa ahalbideratuko duen sarea, alegia. Hau dinamizatzeko, Goiekik, bere web orrialdearen bitartez, [www.goierri.org](http://www.goierri.org), sare honetan parte hartzen duten eragileen harremanak, lantzen diren gaien laburpenak, udalerriek dituzten *praktika onak*, etab. jarriko ditu eskuragarri.

Ondoren aurkezten dugun hau, **Aniztasunaren Kudeaketarako eta Elkarbizitzarako Goierriko Lehenengo ekintza Plana** da eta ondorengo urteetan gizarte kohesionatu bat lortze aldera erabiliko diren estrategiak azalduko dizkigu.

## **METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA**

Elkarbizitza Plan hau egin ahal izateko, ezinbestekoa izan da Goierriko pertsonen eta eragileen partehartzea, horretarako, prozesuaren hasieratik hainbat **lan talde** egin dira gaiaren inguruan goierritarren kezka eta proposamenak jasotzeko. Lan talde horietan, Udaletxeetako teknikari eta politikariek, elkarteetako ordezkariak, gizarte eragileak eta herritarrek, bertakoek eta etorri berriek parte hartu dute. Saiakera berezia egin da lan taldeetan pertsona etorkinen presentzia ziurtatzeko, izan ere, haien presentzia ezinbestekoa baita errealitatearen irakurketa zehatza egiteko. Honez gain, Goiekitik, prozesu guztian zehar jarri dira herritarren ekarpenak jasotzeko bideak; besteak beste, ekarpen fitxak eta planaren zirriborroa zintzilikatu dira web orrian.

Urtebeteko lanaren emaitza da Elkarbizitza Plana. Maiatzean lan taldeekin egindako lehen saioetatik eratorritako ideia eta proposamenekin, planaren zirriborroa aurkeztu zen uztailean. Uztailetik abendura, zirriborro hau osatu eta zehaztu asmoz, kontrastea egin da lan taldeetan parte hartu zutenekin, udaletako teknikariek eta politikariek. Bestalde, herritar guztiek, Goiekiko web orriaren bidez eskura izan dute zirriborroa beren ekarpenak egiteko.

Prozesuaren helburua, goierritarren parte hartzeari esker, konpromisoan oinarritutako, eta guztien artean adostutako, plana egitea izan da.

## **PLANAREN EGITURA**

Plana bost HELMUGEN inguruan dago antolatua. Esku-hartze eremuei (helmugetara iristeko aldaketak eragin behar diren eremuak) buruz hitz egin beharrean helmugei (lortu nahi denaren norabidea markatzen duena) buruz hitz egitea erabaki da.

Helmuga bakoitza lortzeko hainbat ESTRATEGIA daude, eta estrategia bakoitzean ekintza multzoak. Proposatzen diren EKINTZEK esku-hartze eremu ezberdinetan (osasuna, hezkuntza, etxebizitza, lana, etab.) eragiten duten, hau da, osasunerako, hezkuntzarako, etxebizitzarako, lanerako, etab. ekintza zehatzak daude. Ekintza bakoitzaren alboan, ekintzaren ARDURADUNAK, beharrezko den AURREKONTUA eta EPEAK zehaztu dira.

EBALUAKETARI dagokionez, zeregin horretarako tresna bat sortu da. Ebaluaketarako tresna erabilerraza eta bailarako errealitatera egokitua izatea nahi izan da.

Aipatutakoez gain, Elkarbizitza Planak bi eranskin ditu. Lehenengoan, immigrazio teknikariaren funtzioak zehazten dira, batez ere, planaren gidaritzarekin eta koordinazioarekin zerikusia duten funtzioak.

Bigarren eranskinean, momentuz, planetik kanpo geratu diren ekintzak bildu dira. Aipatu den moduan, prozesu guztian zehar etengabekoak izan dira partehartzaileen ekarpenak, proposamenak, etab., eta hauei esker ekintza ugari jasotzen zituen zirriborroa diseinatu zen. Hala ere, ekintza guztiak aurrera eramateko baliabide eta konpromiso nahikoa lortu ez direnez, oraingoz, ekintza horietariko batzuk atzeratzea pentsatu da. Dena den, plana dokumentu itxia ez denez, egoera aldatuz gero, bazterrean utzitako edozein ekintza berreskura liteke. Plana, norabidea zehazten duen tresna da, baina tresna **irekia eta dinamikoa**.

## **ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO ETA** **ELKARBIZITZARAKO PLANAREN INGURUKO OINARRIZKO** **ABIAPUNTUAK**

Planean proposatzen den esku-hartze ereduak, hainbat adituk<sup>1</sup>, gizarte aniztasunaren kudeaketan oinarritutako integrazio prozesuen inguruan egindako planteamenduetan du abiapuntua.

Goierriko erakunde, pertsona, eta oro har, eragile sozialekin egin den partehartze prozesuan, agerian gelditu da badagoela kezka, beharra, eta sarritan, exigentzia Goierriira iristen diren pertsonak bailarara egokitu edo integartzeko. Erraza eta arina dirudien horrek, ia ezinezkoa den prozesua proposatzen du, eta gainera, eztabaidagarriak diren hiru ideietan oinarritzen da. Lehen ideia araberaren arabera, integrazio prozesua, soilik, etorri berrien eskutan geratzen da, horiena da ardura guztia. Bigarrenaren arabera, badirudi, integrazio prozesuak hasiera eta amaiera finko bat duela, zalantzarik gabe esan litekeela noiz dagoen guztiz integratua pertsona atzerritarra. Azkenik, ikusi egin beharko litzateke, bailaran bizi direnek, etorri berriak integratu beharreko alderdien inguruan erabateko adostasunik ote duten

Idea hauekin kontrajarriz, eta errealtatea kontuan izanik, integrazio prozesuan goierritar guztiek hartu beharko lukete parte, Goierri denbora luzea daramatenek eta iritsi berriek. Gainera, aipatu dugun moduan, integrazioa ez da emaitza bat, prozesu bat baizik. Bizitasuna, elkartrukea eta elkarrekintza eskatzen duen prozesua, izan ere, Goierri etengabe joan baita eta joango baita aldatzen. Besteak beste, etengabekoa da toki batetik bestera bizitzera mugitzen diren pertsonen joan-etorria. Gainera, ingurunea bera ere aldakorra da, belaunaldi aldaketaren eraginez, pentsaera berriaren eraginez, aurkikuntza zientifikoen eraginez eta beste hainbat faktoreren eraginez aldatu egiten baita. Ondorioz, ez dago integratu beharreko ingurune zehatz eta estatikorik. Ez dago integartzeko kultura (balio, sinbolo, harreman kode, etab.) bateratu eta estatikorik. Ikuspuntu hau, oso garrantzitsua da, etorri berriez gain, goierritarren artean jada aniztasuna dagoela ikusteko.

---

1 Hemen aipatzen diren kontzeptu eta ideiak modu zabal eta zehatzean bilduta daude Catep S. Coop. enpresak Parlako Udaleko Ongizate Sailerako egindako "Guía para aplicar la perspectiva de la gestión de la diversidad a los procesos de integración en el ámbito municipal" dokumentuan.

Bailarako gizartea dinamikoa da, anitza eta aldakorra, bere baitan jada badu **gizarte aniztasuna**, eta aniztasun horrek bidea ematen du herritarrek garbi izan dezaten eskubide eta betebeharrak berdinak izan behar dituztela guztiek, hau da, pertsona guztiek dutela tratua eta aukera berdintasunerako eskubidea. Hainbat jatorritako pertsonen etorrerak, beraien bizimodu eta bizi ikuskerekin, ez luke zertan aldaketarik sortu behar, alderantziz, benetako integrazioa, etorri berria, bertakoekin batera, Goierriko bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalean parte hartzaile aktibo izatean datza.



## **OINARRIZKO PRINTZPIOAK**

### ***Konpromiso politikotik abiatutako plana***

Borondate politikoa oinarrizkoa da elkarbizitza plan hau gauzatu ahal izateko. Borondate politiko honek bere isla izan behar du Goierriko udal ezberdinetako aurrekontuetan.

### ***Plan errealista***

Plan honek plan errealista izan nahi du, Goierriko egoera kontuan izanik, dauden baliabideak ezagutuz eta eragile sozialen inplikazio maila oinarrian hartuz, helburu errealistak planteatzen dituena.

### ***Aniztasunetik eta aniztasunean, herritar guztientzako plana***

Goierriko herritar guztientzako plana da. Eskualdea bera anitza denaren ideiatik abiatzen da, adinari, sexuari, jatorriari, etab. dagokionez, oso anitzak diren pertsonak biltzen dituena.

### ***Plan erakargarri eta partehartzailea***

Herritarren partehartzea bultzatu asmoz, planean jasotzen diren ekintzak berriak eta erakargarriak izatea bilatu da.

### ***Zerbitzu eta errekurtsioak sendotuko dituena***

Planaren helburuetariko bat herri ezberdinetako zerbitzu eta baliabideak sendotzea izan da. Planak, proposamen berriak eta eskualdeko herrietan jada abian dauden ekintzak konbinatzen ditu, horrela, dauden zerbitzu eta baliabideak optimizatuz.

### ***Ebaluagarria***

Ebaluaketa oinarrikoa da plangintza eta esku-hartze prozesuetan. Ezinbestekoa da planaren indarraldia amaitzen denean bere ondorioak eta eragina neurtzea, emaitzarik hoberenak (edo kaxkarrenak) eman dituzten ekintzak ezagutzea. Gainera, ebaluaketari esker, arrakastak eta porrotak zehaztuz, hurrengo planaren abiapuntua ezagutu liteke.

## **ESKUALDEKO GARAPEN AGENTZIAREN, ETA HAU OSATZEN DUTEN HERRIEN, ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK**

### ○ **LEGE ESPARRUA**

Egun indarrean dauden zuzenbide arauak hainbat aplikazio eremu dituzte, nazioartekoa, estatu mailakoa, autonomikoak edo/eta udal mailakoak. Banan banako errebaso bat egin daitekeen arren, Goierriren kasuan, egokiagoa iruditu zaigu Erkidegoko Araudia eta Udal-esparrukoa adieraztea:

#### ■ **Erkidegoko Araudia**

Oro har, Autonomia Erkidegoaren eskumena da gure artean finkatzea erabakitzen duten pertsonen lanerako eta gizarteratzeko politikak garatzea.

Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua araberan:

“Euskal Herri agintek, beren eskumenen esparruan:

- (a)- Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.
- (b)- Bizi eta laneko baldintzen hobekuntza sustatzea.
- (c)- Enpleguaren gehikuntza eta egonkortasun ekonomikoa sustatzea.
- (d)- Gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute.
- (e)-Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko da.

Horregatik guztiatik, atzerritarrei buruzko kontuetan legeak egiten dituen eta administratzen dituen Estatua izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoak, hezkuntza, osasun, etxebizitzan eta gizarte-ongizatean dituen eskumenak direla eta, zeregin garrantzitsua du aniztasunaren kudeaketan eta elkarbizitzaren sustapenean.

## ■ **Udal-esparrua**

Udal esparruan, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean jasota daude horren egitura, antolamendu eta udalen eskumenei buruzko aipamenak. Beste eskumenen artean ondorengoak aipatzen dira:

- (a)- Hirigintzako antolamendua, kudeaketa, burutzapena eta diziplina; etxebizitzaren sustapen eta kudeaketa.
- (b)- Osasunaren oinarriko arretaren kudeaketan parte hartzea.
- (c)- Gizarte-zerbitzuek eta sustapen eta gizartean birtxertaketak ematea.
- (d)- Kultur eta kirol jarduerak edo instalazioak, aisialdiaren okupazioa, turismoa.
- (e)- Irakaskuntzako programazioan parte hartzea eta Hezkuntzako Administrazioarekin elkarlanean aritzea.

## **ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO ETA ELKARBIZITZARAKO LEHENENGO PLANAREN HELMUGAK**

**1go Helmuga: Goierriko herritarrak (beraien jatorria kontuan izan gabe) herrietan elkarbizitza eta gizarte kohesioa lortzen inplikatu**

**2. Helmuga: Garapen Agentzian eta hau osatzen duten Udaletan aniztasunaren kudeaketaren ikuspegia txertatzen lagunduko duten azpiegiturak sortzen joatea.**

**3. Helmuga: Pertsona etorkinek, bertakoen moduan, baliabide publikoak normaltasunez erabil ditzaten ziurtatzea**

**4. Helmuga: Eskualdeko erakunde publikoetan atzerritarrek jasan ditzaketen desabantaila edo diskriminazioak gainditzeko neurri zehatzak hartzea.**

**5. Helmuga: Jatorria kontuan izan gabe, Goierriko emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzea.**

**1go Helmuga: Goierriko herritarrak (beraien jatorria kontuan izan gabe) herrietan elkarbizitza eta gizarte kohesioa lortzen inplikatu**

**1.go ESTRATEGIA: Gizarte eta kultur bitartekaritzarako baliabideak bultzatzea.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Eskualdeko herriekin adostu elkarbizitza sustatzeko tokiko gobernuen Sarean sartzea	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA 18 UDALAK (Alkatetzak)					
Bailara osorako aholkularitza zerbitzua eskatu Biltzeni eta Farapiri.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA BESTE AGENTZIAK					
Aniztasunaren eta elkarbizitzaren kudeaketan <i>praktika onak</i> izan direnak herrietan zabaldu	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA BILTZEN INMIGRAZIO TEKNIKARIEN SAREA					
Euskararen gaia lantzeko, Ikuspegiren moduko euskara munduko eragile ezberdinei laguntza eskatu	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA EUSKARA SAILAK BESTE ERAKUNDEAK					
Elkarteak identifikatu, plana ezagutzera eman eta <i>praktika onak</i> jaso eta elkartrukatu	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA ELKARTEAK					

**2. ESTRATEGIA: Gizarte eta kultur dinamizaziorako errekurtsuak sustatzea.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Udaletxeetako kultura sailtako programa aztertu aniztasunaren kudeaketaren ikuspegitik, eta kultur jardueretan (zine forumak, antzerkia,...) migrazio mugimenduekin zerikusia duten kontzeptuak edo gaiak landu: estereotipoak, integrazioa, etab.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA KULTURA SAILAK BILTZEN (baliabide) ELKARTEAK					
Pertsona atzerritarrak eskualdeko elkarteetan parte hartzera gonbidatu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA ELKARTEAK					

Eskualdean, pertsona etorkinen egoera hobetzeko edo immigrazio gaiak lantzeko sortu daitezkeen elkarteak babestu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA					
---	--------------------------	--	--	--	--	--

**3.go ESTRATEGIA: Herrietako espazio publikoetan, bertako herritarren eta atzerritarren arteko elkarrekintza erraztu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
---------	-------------	---------	---------	---------	---------	-------------

Herritar guztien topaketa erraztu asmoz, (Goierri Koloreren moduko) ekintza eta eskuhartzeak antolatu eta udal nahiz erakundeen inplikazio ekonomikoa bultzatu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA KULTURA SAILAK KIROL SAILAK GAZTERIA EUSKARA IKASTETXEAK KALEKO PROGRAMAK					
---	---	--	--	--	--	--

**4.go ESTRATEGIA: Agentziarekin eta enpleguarekin harremandutako sektoreen partehartzea eta elkarlana bultzatu: enpresariak, sindikatuak, formakuntzarako erakundeak.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
---------	-------------	---------	---------	---------	---------	-------------

Enpresariak, etorkinak kontratatuzko izan ditzaketen beldurrak gainditzeko, sensibilizazioa bideratutako jarduerak bultzatu, hauen artean <i>praktika onen</i> difusioa.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA ZERBITZUALDEA BILTZEN (laguntzaile)					
Planaren diseinuaren prozesuan sortutako lan taldea sendotu, eta informazioa elkartrukatzeko dinamikak sortu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA LAN ARLOKO TEKNIKARIAK					

**5.go ESTRATEGIA: Elkarbizitza sustatzen aktiboki lan egiten duten gizarte eragileen artean, partehartzea eta elkarlana sustatuko dituzten ekintzak bultzatu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
---------	-------------	---------	---------	---------	---------	-------------

Eskualdeko guraso elkarteetan ezagutzera eman, EAEko eta beste komunitate autonomo batzuetako guraso elkarteek elkarbizitzaren edo/eta etorkinen inguruan egin dituzten ekimenak.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA 18 UDALAK IKASTETXEAK BERRITZEGUNE					
---	--	--	--	--	--	--

Eskualdeko auzo elkarten artean, EAEko eta beste komunitate autonomo batzuetako auzo elkarteek elkarbizitzaren edo/eta etorkinen inguruan egin dituzten ekimenak ezagutzera eman.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA 18 UDALAK KULTURA ELKARTEAK				
---	---	--	--	--	--

**6.go ESTRATEGIA: Udal mailako elkarbizitza agendak adosteko ekintzak bultzatu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
---------	-------------	---------	---------	---------	---------	-------------

Herrietan planaren inizatiba aurkeztu	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA 18 UDALAK GOIEKI					
Agenden onarpenerako prozesu partehartzaile bat egin	UDALAK ELKARTEAK					



**2. Helmuga: Garapen Agentzian eta hau osatzen duten Udaletan aniztasunaren kudeaketaren ikuspegia txertatzen lagunduko duten azpiegiturak sortzen joatea.**

**1.go ESTRATEGIA:** 1.go planaren edukien inguruko sentsibilizazioa eta aplikazioa bultzatu.

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
1.go elkarbizitza planeko ekintzak, filosofia eta oinarriko kontzeptuak zabaldu eskualdeko eragileen eta herritarren artean.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKI UDALAK ALKATETZAK					
Planean jasotzen diren ekintzak egoki zabaldu	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA KOMUNIKABIDEA K					

**2.go ESTRATEGIA:** Immigrazio sailaren, udaletako nahiz agentziako gainontzeko sailen eta gizarte eragileen arteko koordinazioa bultzatu.

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Udaletako teknikariek informazioa elkartrukatzeko, aholkularitzarako eta formakuntzarako koordinazioa sistema egonkorra adostu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDALETAKO TEKNIKARIAK					
Beraien eskumenekoak diren, eta planean jasotzen diren, ekintzak bultzatzeko udalen arteko adostasun instituzionala lortu.	GOIEKI UDALAK					
Udalekin, urtero bilerak egin onartutako konpromezuen jarraipena eta egindakoaren ebaluaketa egiteko	GOIEKI UDALAK					
Planaren diseinurako sortutako lan taldeak mantendu eta osatu, eta jarraipenerako dinamikak sortu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDALETAKO TEKNIKARIAK ERAGILE SOZIALAK SAREKO ERAGILEAK					

**3.go ESTRATEGIA: Aniztasunaren kudeaketaren inguruko formakuntza programak egin.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Planaren oinarrizko kontzeptuen azalpena egiteko, formazio programa bat egin udaletako teknikariek, arreta berezia eskainiz aniztasunaren kudeaketari eta genero ikuspegiari.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKI UDALAK					
Sarean dauden eragile guztientzat formakuntza programak bultzatu; irakaslegoarentzat, osasun teknikarientzat, lan arloko teknikarientzat, elkarteentzat, etab.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA BERRITZEGUNEA IKASTETXEA OSAKIDETZA					

**4.go ESTRATEGIA: Elkarbizitza eta aniztasunaren kudeaketaren inguruan dauden baliabide guztiak (bibliografikoak, ikus-entzunezkoak, datu basea, kanpo-aholkularitza, barne baliabideak, formakuntza eskaintzak, etab) eskuragarri jarri udaletako sail eta zerbitzuentzat eta gizarte eragileentzat.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Elkarbizitzaren eta aniztasunaren kudeaketaren inguruko baliabide eta zerbitzuei buruzko informazio guztia sistematizatu eta zabaldu udaletako sail eta zerbitzuen artean, eta gizarte eragileen artean.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA					

**5.go ESTRATEGIA: Eskualdeko herrietara bizitzera etorritako pertsonen datuak eguneratuak mantendu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Udal erregistroekin datu bilketa eta analisirako irizpide batzuk adostu, gutxienezkoak izanik sexua, jatorria eta erroldatze hilabetea.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDALAK ALKATETZAK (Administrazioa)					
Eskualdeari buruzko emaitzak zentralizatu eta udaletxeetan eta beste hainbat erakundetan zabaldu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA					

**6.go ESTRATEGIA: Gizartearen aniztasuna (adina, sexua, jatorria, etab.) kontuan izan Goiekitik eta Udaletatik abian jartzen diren komunikazio kanpainenetan.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Komunikazio kanpainenetako hizkuntza eta irudiak gainbegiratu egon daitezkeen (sexu, adin, jatorri, etab.) diskriminazioak eta estereotipoak saihas teko.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA					

**3. Helmuga: Pertsona etorkinek, bertakoen moduan, baliabide publikoak normaltasunez erabil ditzaten ziurtatzea**

1.go ESTRATEGIA: Eskualdeko udal erregistroetako lehen harrera eta informazio zerbitzuak hobetu.

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Partehartzaileak identifikatu eta eskualde mailako harrera sarea sortu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA					
Lehen harrerako eskualde mailako protokoloa adostu, sarean parte hartzen duten erakunde guztien artean.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GIZARTE ZERBITUAK UDALAK (Administrazioa) OSAKIDETZA IKASTETXEAK ELKARTEAK					
Goierriko baliabideen gida eguneratua mantendu eta banatzen jarraitu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKI					

2. go ESTRATEGIA: Etxebizitza lortzerakoan dauden diskriminazio egoerak identifikatu eta hauek ekiditeko neurriak hartu.

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Alokabide eta Etxebide zerbitzuak ezagutzera eman	UDALAK CARITAS GURUTZE GORRIA					

3.go ESTRATEGIA: Lan merkatuan sartzeko babes neurriak sustatu eta lanerako informazio, orientabide eta formakuntza bideak hobetu.

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Lanerako esparru berriak edo lan aukera onak eskaintzen dituzten enpresak identifikatu eta haiekin harremanetan jarri.	GOIEKIKO ENPLEGU SAILA LANBIDE INEM					

	SINDIKATUAK GURUTZE GORRIA					
Eskualdeko lan merkatuan sartzeko pertsona hauek izan ditzaketen formakuntza beharrak identifikatu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKIKO ENPLEGU SAILA IKASTETXEAK LANBIDE INEM SINDIKATUAK GURUTZE GORRIA EPA					

**4.go ESTRATEGIA:** Ikasle atzerritarren eta hauen familien harrerarako eskualdeko baliabideak identifikatu eta indartu.

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Eskualdean, eskola munduan ikasle atzerritar etorri berriei harrera emateko dituzten beharrak antzeman eta hauei erantzuna emateko errekurtsoak eskatu Eusko Jaularitzako Hezkuntza sailari.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA BERRITZEGUNEA IKASTETXEAK					
Eskolaz kanpoko jardueretan, ikasle atzerritar etorri berrien partehartzea bultzatzen jarraitu.	IKASTETXEAK GURASO ELKARTEAK					

**5.go ESTRATEGIA:** Atzerriko bizilagunak eskualdeko osasun baliabideak eskura izan ditzala ziurtatu.

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Osasun errekurtsoei buruzko orientabide protokoloa eskualdeko udalerrien artean adostu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GIZARTE ZERBITZUAK OSAKIDETZA					

**4. Helmuga: Eskualdeko erakunde publiko eta sozialetan atzerritarrek jasan ditzaketen desabantaila edo diskriminazioak gainditzeko neurri zehatzak hartzea.**

**1.go ESTRATEGIA: Egon litezkeen bazterkeria egoerak antzeman eta erantzunak eman.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Eskualdeko erakunde publiko eta pribatuekin urgentziazko egoerei erantzuna emateko protokoloa adostu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKI UDALAK GURUTZE GORRIA IKASTETXEAK ELKARTEAK CARITAS					

**2.go ESTRATEGIA: Erregularizazio juridiko-administratiboko egoerei erantzuna eman.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Gurutze Gorriarekin, eskualdean zehar mugituko den pertsona baten kontratazioa adostu, erregularizazio egoera juridiko-administratiboei erantzuna emateko.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDALAK GURUTZE GORRIA					
Atzerritarren erregularizatorako baliabide eta tramiteak jasotzen dituen gida bat egin eta eguneratua mantendu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKI ENPRESAK IKASTETXEAK GURUTZE GORRIA					

**3.go ESTRATEGIA: Atzerriko adin txikikoei harrera eskaini gaian eskumena duten gainontzeko erakundeekin koordinatuz.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Adin txikiko etorkinak dauden herrietan, udal mailako protokoloekin jarraitu - ikastetxeak-elkarteak-harrera pisuak (hezitzaile eta gazteak)-	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GAZTERI GAIETAN LAN EGITEN					

	DUTENAK (kale hezitzaileak, ludoteketako arduradunak, aisialdiko begiraleak, etab.).					
Adin-txikikoen egoeraren berri emanez egiten diren sentsibilizazio saioekin jarraitu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA					
Eskualdeko aisialdi taldeekin, gaztelekuekin, kale hezitzaileekin eta beste zerbitzu sozio-hezitzaileekin harremanetan jarri, adin txikikoak, bereziki etorkinak, beraiek antolatutako jardueretan parte hartzera gonbidatu ditzaten.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA AISIALDI TALDEAK HARRERA PISUETAKO ARDURADUNAK					

**4.go ESTRATEGIA: Etorkin helduek hezkuntza, formakuntza eta hizkuntz ezagutzak lor ditzaten baliabideak identifikatu eta bultzatu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Helduen alfabetatzerako eskualdean abian jartzen diren inizatiba guztiak babestu (HHIk, etab.).	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKI UDALAK					
Euskara ikasteko inizatiba eta baliabide guztiak sustatzen jarraitu (Euskaltegiak, AISA programa, Mintzalaguna, etab.).	UDALAK (euskara, Kultura, etab.).					

**5. Helmuga: Jatorria kontuan izan gabe, Goierriko emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzea.**

**1.go ESTRATEGIA: Genero ikuspegia txertatu planean aipatzen diren ekintzetan eta planaren kudeaketan.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Genero ikuspegitik gainbegiratu planean aipatzen diren ekintza guztiak.	GOIEKI					
Udaletako langileei eskaintako formakuntza programan, genero ikuspegia lantzeko modulu espezifiko bat sartu.	GOIEKI					
Hizkuntza eta eduki sexistak ekidin.	GOIEKI					
Ahalegin berezi bat egin, planean zehazten diren ekintzetan emakumeek (bereziki atzerritarrek) parte hartu dezaten.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA BERDINTASUN TEKNIKARIAK UDALEKO TEKNIKARIAK					

**2.go ESTRATEGIA: Menpekoen (adineko pertsonak, haurrak, etab.) zaintzaren inguruko gogoetarekin hasi eta zerbitzuak egokitu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Zaintzaileak (bereziki emakume atzerritarrek, zaharrak, etab.) udaletako sail ezberdinetatik antolatzen diren jardueretara joan daitezen menpekoentzako zaintza zerbitzuak eskaini.	GOIEKI GIZARTE ZERBITZUAK KULTURA SAILAK KIROL SAILAK					
Ikasturtean zehar, eta opor garaian, eskolaz kanpoko jarduera programa eskaintzen jarraitu	BERRITZEGUNA IKASTETXEAK GURASO ELKARTEAK AISIALDI TALDEAK					



**3.go ESTRATEGIA: Eskualde mailan genero indarkeria sahisteko neurriak hartu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK	1 Urtea	2 Urtea	3 Urtea	4 Urtea	AURREKONTUA
Genero indarkeria jasan duten emakumeentzako errekurtsoen inguruko informazioa zabaldu, informazio hau, emakume etorkinetara iristen dela ziurtatuz.	UDALETAKO TEKNIKARIAK GIZARTE ZERBITZUAK IMMIGRAZIO TEKNIKARIA					
Genero indarkeriaren aurkako Legedian emakume etorkinei dagozkien alderdien inguruko informazioa zabaldu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GIZARTE ZERBITZUAK					

## **EBALUAKETA**

### **ABIAPUNTUAREN DESKRIBAPENA**

*(Immigrazio teknikariak egiteko)*

Planaren garapenarekin hasi aurretik oinarritzkoa da helmuga bakoitzeko abiapuntua zein den ezagutzea horretarako deskribapen bat eginez.

**1go Helmuga: Goierriko herritarrak (beraien jatorria kontuan izan gabe) herrietan elkarbizitza eta gizarte kohesioa lortzen inplikatu**

**2. Helmuga: Garapen Agentzian eta hau osatzen duten Udaletan aniztasunaren kudeaketaren ikuspegia txertatzen lagunduko duten azpiegiturak sortzen joatea.**

**3. Helmuga: Pertsona etorkinek, bertakoen moduan, bliabide publikoak normaltasunez erabil ditzaten ziurtatzea**

**4. Helmuga: Eskualdeko erakunde publikoetan atzerritarrek jasan ditzaketen desabantaila edo diskriminazioak gainditzeko neurri zehatzak hartzea.**

**5. Helmuga: Goierriko emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzea.**

## EKINTZEN JARRAIPEN FITXA

(Ekintzaren arduradunak bete behar du. Betetakoan immigrazio teknikariari bidali behar zaio)

<b>Ekintza</b>	<b>Helmuga:</b> <b>Estrategia:</b>
<b>Ekintzaren deskribapena</b>	
<b>Arduraduna</b>	
<b>Data</b>	
<b>Behar izan den aurrekontua</b>	
<b>Zailtasunak</b>	
<b>Ekintzaren balorazioa</b>	
<b>Ondorioak eta eraginak</b>	
<b>Partehartzea (sexua, adina, jatorria) (beharrezkoa bada)</b>	<b>Emakume kopurua:</b> <b>Adin tarteak:</b>  <b>Gizon kopurua:</b> <b>Adin tarteak:</b>

## ESTRATEGIEN EBALUAKETA

(Immigrazio teknikariak egiteko)

### Jarraipen fitxen laburpena:

<b>Estrategia</b>	<b>Helmuga:</b>
<b>Egindako ekintzen portzentaia:</b>	
<b>Planean aurrakusi gabeko ekintzak</b>	
<b>Aurrekontua</b>	

### Estrategien balorazioa:

- Estrategia osoa garatzea lortu al da?
- Zein zailtasun egon dira estrategiaren garapenean?
- Zein izan da estrategia osatzen duten ekintzetan partehartze portzentaia?
- Zein neurritan bete dira onartutako konpromezuak?
- Zein aldaketa eragin ditu Goierriko pertsona, erakunde, herri edo bailaran?

## HELMUGEN EBALUAKETA

(Immigrazio teknikariak egiteko)

<b>Helmuga:</b>	
<b>Garapen maila</b>	<b>Helmuga bakoitzean garatu diren estrategien portzentaia (estrategia bakoitzean garatutako ekintzen portzentaia kontutan izanik kalkulatu)</b>

### Helmugen balorazioa

- Abiatutako egoerarekin alderatuz, helmugara bidean, zein tokitan aurkitzen gara? (Helmuga bakoitzeko analisia egin)
- Planeko helmugak lortzeko egokiak al dira zehaztutako estrategiak?
- Ikusi al da beste estrategia posiblerik?
- Errealistak al dira helmugak?
- Zein izan da helmuga bakoitzeko Udal bakoitzaren (edo Udaletako sail bakoitzaren) konpromezu maila?
- Zeintzuk izan dira Udalek (edo Udaletako sail ezberdinek) gainditu beharreko zailtasunak hartutako konpromezuak aurrera eramateko?
- Mantendu al da herritarren aniztasuna (sexua, adina, jatorria, behar bereziak, etab.) egin diren ekintzetan?

- Herritar talde ezberdinak (gizonak, emakumeak, gazteak, adinekoak, Europar Batasunaz kanpokoak, behar bereziak dituztenak, etab.) izan al dira egindako ekintzen onuradun?
- Herritarren partehartzea aktiboa izan al da planaren garapenean?
- Zein gizarte eragileren laguntza izan da plana garatzerako orduan?
- Sendotu al dira lehenagotik zeuden zerbitzu, baliabide eta jarduerak?
- Lortu al da koordinazio, datu bilketa, etab-etarako zerbitzu, baliabide eta tresna iraunkor bat sortzea?
- Egiteko modukoak al dira planean jasotzen diren teknikariaren funtzioak ?
- Zein zailtasun egon dira plana ebaluatzerako garaian?
- Egokia al da ebaluaketarako metodologia?

## **I.go ERANSKINA**

## IMMIGRAZIO TEKNIKARIAREN FUNTZIOAK

- Elkarbizitzarako I.go planaren garapena bultzatzea.
- Plana eta planaren edukiak zabaltzea garapen agentzian, udaletan eta Goierriko herritarren artean.
- Planaren jarraipena egitea.
- Planaren garapenean partehartzen duten eragile guztiak koordinatzea.
- Udalekin eta udalaz gaindiko erakundeekin hartu-emanak mantentzea.
- I.go planaren ebaluaketa egitea.

<b>I. PLANAREN GARAPENA BULTZATZEA</b>	Immigrazio teknikariaren funtzio garrantzitsuenak I.planaren garapena bultzatzea da, horretarako bailarako herri guztien inplikazioa bilatuz.
--	---

<b>I PLANA ZABALTZEA</b>	Plana Goiekiko web orrian eta Udaletako web orrian zintzilikatu.
	Planaren aurkezpen publikoa egin.
	Planaren kopiak zabaltzea Goiekiko langileen artean, udaletako teknikarien artean eta bailarako eraikin publiko guztietan.
	Planaren kopiak zabaltzea, ikastetxeetan, elkarteetan eta gainontzeko toki publikoetan.
	I.go planaren oinarrizko edukiak jasotzen dituen liburuxka buzoneatu Goierriko herrietan.
	Planen jasotako jarduera, zerbitzu eta baliabide guztiak plazaratu.

<b>JARRAIPENA</b>	Erakunde edo sail bakoitzari urtero dagozkion ekintzak jasotzen dituen dokumentua helarazi.
	Programatutako ekintzen garapen maila aztertzeko urteroko ebaluaketa bat egin.
	Ebaluaketan jasotako emaitzen arabera aldaketak sartu planera (ekintzak aldatu, ordezkatu, eragile gehiago inplikatzea, etab...)



<p><b>HERRIEKIN KOORDINAZIOA</b>  (Harrera Sarea)</p>	<p><b>-Koordinazioa eta jarraipena:</b>  <u>-Udalekin, eta udaletako sailekin, adostasuna lortzea:</u>                  Immigrazio teknikariak udaletako teknikariekin adostu behar du nola, noiz eta zenbatero bilduko diren.</p> <p><u>-Goiekiko immigrazio teknikariaren inizatiba:</u> Immigrazio teknikariaren ardura da sail ezberdinekin izan beharreko harremana eta koordinazioa indarrean mantentzea.</p> <p><u>-Koordinazio mekanismoak:</u>                  1.-Udalekin eta udal sailekin koordinazio bilerak egin (batera edo bananduta), aurrez adostutako maiztasunarekin.                  2.-Udalek eta udal sailek sistematikoki helaraziko dizkiote immigrazio teknikariari udaletako programak, planak, ebaluaketak eta jarduera memoriak.                  3.-Immigrazio sailaren ardura izango da Udalei, eta udal sailei, goian aipatutako dokumentazioa eskatzea. Hau sail ezberdinekin adostutako maiztasunarekin egingo da.                  4.-Immigrazio teknikariaren ardura izango da udaletatik bidalitako plan eta programak gainbegiratzea bertako jarduerak I.go planera egokitzeko.                  5.-Bestalde, teknikariak udaletako ebaluaketa eta memoriak begiratuko ditu. Bi helburu izango ditu: (a)- aniztasunaren kudeaketa oinarri hartuta, dokumentu hauek helburu hori betetzen duten baloratzea. (b)- ebaluaketa eta memoriaren emaitzen arabera, plan edo programetan aldaketak proposatzea, edo eskuhartze lerro berriak proposatzea.</p>
	<p><b>-Trebakuntza eta aholkularitza:</b>  <u>-Beharren ebaluaketa:</u> Immigrazio sailetik, Udaletan trebakuntzan eta aholkularitzan (barne edo kanpo aholkularitzan) dituztenen beharrak zehaztu behar dira. Beharrezkoa da ebaluatzea noiz den beharrezko formazioa edo trebakuntza, eta noiz aholkularitza edo laguntza teknikoak.</p> <p><u>-Programaketa:</u> Behin beharren ebaluaketa egin ostean, immigrazio sailetik, trebakuntzaren, aholkularitzaren edo laguntza teknikoaren urtebeteko programaketa egingo da. Programaketa hau sail bakoitzarekin adostuko da.</p> <p><u>-Sailen ekimenak:</u> Sailetan, trebakuntza, aholkularitza edo laguntza teknikoko beharrak ikusten badituzte immigrazio sailari eskaera egin diezaiekete.</p>
	<p><b>-Baliabideak:</b>  <u>-Dokumentazio espezializatua:</u> (a)- Udaletan, aniztasunaren kudeaketaren inguruan edo immigrazioaren inguruan dauden baliabideak (bibliografikoak, ikus-entzunezkoak, on line baliabideak, etab...) identifikatu. (b)- Datuen baliabideekin datu basea sortu eta udalen artean zabaldu. (d)- Hutsuneak identifikatu eta osatu. (e)- Eskuratutako materialaren berri eman. (f)- Sail bakoitzarentzat aniztasunaren kudeaketan lagungarriak izan daitezkeen materialak eskuratu (gidak, praktika onen gidak, etab.).  <u>-Zerbitzu espezializatuak:</u> (a)- Immigrazioarekin erlazionaturiko udal zerbitzuak identifikatu (datu baseak, laguntza ekonomiko espezifikokoak, etab...). (b)- Sail bakoitzari, bere eskumenekoak diren arloetan immigrazio gaietan lan egiteko, udalaz gaindi dauden baliabideen berri eman (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritza, Eudel, etab...). (d)- Udal edo eskualde mailan immigrazio gaietan lan egiten duten elkarteak identifikatu. (e)- Aniztasunaren kudeaketan edo immigrazio gaietan espezializatuak diren pertsonen, aholkularitza zerbitzuen, etab. berri eman. (f)- Informazio guztiarekin datu base bat sortu eta udal eta sail guztietan banatu. (g)- Informazio osatu eta eguneratua mantendu. (h)- Datu base hau zabaldu.</p>

<p><b>ERAGILE SOZIALEKIN KOORDINAZIOA</b></p> <p>(Harrera Sarea)</p>	<p><b>Informazioa ezagutu eta sistematizatu:</b></p> <p>-<u>Eragileak identifikatu:</u> Herrietako eragile sozial aktiboek identifikatu (elkarreak, guraso elkarreak, partikularrak, etab...).</p> <p>-<u>Datu base bat sortu:</u> Jasotako informazioa sistematizatu, antolatu eta egunean mantendu. Eragile sozialei eta udaletako sailei helarazi.</p> <p>-<u>Harremana sortu:</u> Informazioa elkartrukatzeko komunikazio iraunkorra sortu eragile sozialekin</p> <hr/> <p><b>-Trebakuntza eta aholkularitza:</b></p> <p>-<u>Aholkularitza:</u> Eragile sozialen aldetik eskaera dagoenean, immigrazio sailak aholkularitza zerbitzua eskaini behar da.</p> <p>-<u>Trebakuntza:</u> Era berean, aniztasunaren kudeaketaren inguruan informazioa edo trebakuntza behar izanez gero, eragile sozialek immigrazio sailera jo dezakete.</p> <p><b>-Baliabideak:</b></p> <p>-<u>Dokumentazioa eta zerbitzu espezializatuak:</u> Eragile sozialei helarazi, Europar komunitatetik kanpoko etorkinei buruzko dokumentazioa eta hauentzako zerbitzuak jasotzen dituen aurrez aipatutako datu basea.</p>
--	---

<p><b>UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN INTERLOKUZIOA</b></p>	<p>Immigrazio gaietan helburu orokorrak lortzeko lan egiten duten udalaz gaindiko erakundeekin (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritza, Eudel, etab...) komunikazio bideak sortu eta mantentzea.</p>
--	---

<p><b>EBALUAKETA</b></p>	<p>I.go planaren indarraldia amaitzen denean, bertan zehazten diren irizpideak jarraituz planaren ebaluaketa egin behar da.</p>
--------------------------	---

## **II. ERANSKINA**

## ETORKIZUNEAN GARATZEKO EKINTZAK

Bigarren eranskin honetan bildu dira, garrantzitsuak direla uste arren, planaren lehen lau urtetan garatzeko baliabide nahikoa lortu ez diren ekintzak. Dena den, dokumentu honetan jaso dira lan taldeetan pertsona eta erakundeek egindako ekarpenak, bereziki, beraien lanari aitorpena egin asmoz.

### 1go Helmuga: Goierriko herritarrak (beraien jatorria kontutan izan gabe) herrietan elkarbizitza eta gizarte kohesioa lortzen inplikatu

#### 1.go ESTRATEGIA: Gizarte eta kultur bitartekaritzarako baliabideak bultzatzea

EKINTZA	ARDURADUNAK
Herrietara iritsi berriak diren familiei harrera egiteko familia bolondresen poltsa bat sortu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA KULTURA SAILAK GURASO ELKARTEAK IKASTETXEAK
Biltzenen bitartez, herrietan arazo konponketarako bitartekaritza programak sortu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA BESTE AGENTZIAK
Eskualde mailan, itzultzaile zerbitzu bat bultzatu	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDALAK

#### 2. ESTRATEGIA: Gizarte eta kultur dinamizaziorako baliabideak sustatzea.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Jatorri ezberdineko pertsonen arteko harremanak, bereziki emakumeen artekoak, bultzatuko dituzten kirol jarduerak programatu.	KIROL SAILAK ELKARTEAK
Herrietan elkarbizitza bultzatzeko prest dauden erakunde publiko eta pribatu bolondresen lan poltsa sortu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA KULTURA SAILAK KIROL SAILAK ELKARTEAK CARITAS GURUTZE GORRIA

#### 3.go ESTRATEGIA: Herrietako espazio publikoetan, bertako herritarren eta atzerritarren arteko elkarrekintza erreztu.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Espazio publikoen erabileraren inguruko hirigintza diagnostiko bat egin, arreta berezia jarriz bertakoen eta atzerritarren erabilera segregatua edo mixtoa den identifikatzeko	GOIEKI IMMIGRAZIO TEKNIKARIA HIRIGINTZA SAILAK

#### 4.go ESTRATEGIA: Agentziarekin eta enpleguarekin harremandutako sektoreen partehartzea eta elkarlana bultzatu: enpresariak, sindikatuak, formakuntzarako erakundeak.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Pertsona atzerritarren artean enpresariak eta/edo profesionalak identifikatu beraien testigantzak bilduz eskualdeko egunkari edo aldizkarietan, honela bertako enpresariekin esperientziak trukatzuz eta sareak sortuz.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA HITZA GOIERRI TELEBISTA GOIERRITARRA
Enpresen eta beraien jardueren aurkezpena egin pertsona langabetuen artean.	GOIEKIKO ENPLEGU SAILA ESKUALDEKO ENPRESAK INEM LANBIDE Web orriko industri gida
Etorrinak enpresa munduan errazago egokitu daitezen, sentsibilizazio jarduerak egin langileen artean.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA ZERBITZUALDEA BILTZEN (laguntzaile)

**2. Helmuga: Garapen Agentzian eta hau osatzen duten Udaletan aniztasunaren kudeaketaren ikuspegia txertatzen lagunduko duten azpiegiturak sortzen joatea.**

1.go ESTRATEGIA: 1.go planaren edukien inguruko sentsibilizazioa eta aplikazioa bultzatu.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Beraien helburu edo antolakuntzan, elkarbizitza bultzatzen duten enpresa, elkarte, erakunde, eta abarri lehentasuna eman Goiekitik edo Udaletatik banatzen diren dirulaguntzetan.	GOIEKI UDALAK ALKATETZAK

3.go ESTRATEGIA: Aniztasunaren kudeaketaren inguruko formakuntza programak egin.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Aniztasunaren kudeaketaren inguruko formakuntza programa egin eskualdean enpresa munduan mugitzen direnekin (enpresariak, sindikatuak, etab.).	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKIKO ENPLEGU SAILA SINDIKATUAK EMPRESAK
Esperientzia eskolan elkarbizitzaren eta aniztasunaren kudeaketaren inguruko modulu edo programaren bat sartu	GOIEKI

4.go ESTRATEGIA: Elkarbizitza eta aniztasunaren kudeaketaren inguruan dauden baliabide guztiak (bibliografikoak, ikus-entzunezkoak, datu basea, kanpo-aholkularitza, barne errekurtoak, formakuntza eskaintzak, etab.) eskuragarri jarri udaletako sail eta zerbitzuentzat eta gizarte eragileentzat.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Udalerrri ezberdinetan, elkarbizitzaren eta aniztasunaren kudeaketaren inguruan dauden baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa helarazi immigrazio teknikariari.	UDAL TEKNIKARIAK

5.go ESTRATEGIA: Eskualdeko herrietara bizitzera etorritako pertsonen datuak eguneratuak mantendu.

EKINTZA	ARDURADUNAK
---------	-------------

Aniztasunaren kudeaketarako interesgarriak iruditzen zaizkien beste irizpide batzuk adostu (diru-sarrerak, dependientzia duten pertsonak zaintzen dituztenak, ezinduak, etab.)	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDALAK ALKATETZAK (Administrazioa)
--	--

**3. Helmuga: Pertsona etorkinek, bertakoen moduan, baliabide publikoak normaltasunez erabil ditzaten ziurtatzea**

1.go ESTRATEGIA: Eskualdeko udal erregistroetako lehen harrera eta informazio zerbitzuak hobetu.

EKINTZA	ARDURADUNAK
---------	-------------

Eskualdeko eta udaletako zerbitzu eta baliabideen erabilera aztertu, gutxien erabiltzen dituztenen artean promozionatuz eta erabilera bultzatuz.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDAL SAILAK
--	--------------------------------------

2. go ESTRATEGIA: Etxebizitza lortzerakoan dauden diskriminazio egoerak identifikatu eta hauek ekiditeko neurriak hartu.

EKINTZA	ARDURADUNAK
---------	-------------

Erakunde publiko eta pribatuen artean etxebizitzaren beharraren inguruko sentsibilizazio kanpaina egin, arreta berezia eskainiz atzerritarrek jasan ditzaketan diskriminazio egoerei.	GOIEKI UDALAK ELKARTEAK
---	-------------------------------

Gizarte erroldatze programa sustatu eskualdean	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA UDALAK ELKARTEAK
--	--

Herrietan, hutsik dauden edo konponketa behar duten etxebizitzak identifikatu eta zenbatzeko proposamena egin udalei.	UDALETAKO HIRIGINTZA SAILAK
---	--------------------------------

3.go ESTRATEGIA: Lan merkatuan sartzeko babes neurriak sustatu eta lanerako informazio, orientabide eta formakuntza bideak hobetu.

EKINTZA	ARDURADUNAK
---------	-------------

Informazio hau pertsona atzerritar langabetuen artean zabaltu, horretarako biderik egokienak erabiliz.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKIKO ENPLEGU SAILA LANBIDE INEM SINDIKATUAK GURUTZE GORRIA ETORKINEN ELKARTEAK
--	--

Atzerritar langabetuen autoenplegu ekimenak babestu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKIKO ENPLEGU SAILA
--	---

INEM, Lanbide eta antzeko zerbitzuetara doazen erabiltzaileak, sindikatuera bideratu langile moduan dituzten eskubide eta arduren berri, kontratu eta nominen berri etab. jasotzeko.	
--	--

**5.go ESTRATEGIA:** Atzerriko bizilagunak eskualdeko osasun baliabideak eskura izan ditzala ziurtatu.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Eskualdeko osasun baliabideen inguruko informazioa zabaldu horretarako biderik egokienak ibiliz.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA OSAKIDETZA
Iritsi berriak diren pertsonak izan ditzaketen arazo espezifikoeei erantzuna emateko baliabideak topatu eskualde mailan.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA OSAKIDETZA KLINIKA PRIBATUAK

**4. Helmuga: Eskualdeko erakunde publikoetan atzerritarrek jasan ditzaketen desabantaila edo diskriminazioak gainditzeko neurri zehatzak hartzea.**

**1.go ESTRATEGIA:** Egon litezkeen bazterkeria egoerak antzeman eta erantzunak eman.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Eskualdeko erakunde publiko eta pribatuekin urgentziazko egoerei erantzuna emateko protokoloa adostu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GOIEKI UDALAK GURUTZE GORRIA IKASTETXEAK ELKARTEAK CARITAS

**3.go ESTRATEGIA:** Atzerriko adin txikikoei harrera eskaini gaian eskumena duten gainontzeko erakundeekin koordinatuz.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Eskualdera iristen diren adin txikikoei harrera emateko bolondresen poltsa bat sortu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA GAZTERI GAJETAKO TEKNIKARIAK EUSKARA SAILAK GIZARTE ZERBITZUAK HARRERA PISUETAKO ARDURADUNAK ELKARTEAK
Emantzipazio prozesuan dauden gazteei laguntzeko bolondresen programa bat bultzatu.	IMMIGRAZIO TEKNIKARIA ELKARTEAK

**5. Helmuga: Jatorria kontuan izan gabe, Goierriko emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzea.**

**1.go ESTRATEGIA:** Genero ikuspegia txertatu planean aipatzen diren ekintzetan eta planaren kudeaketan.

EKINTZA	ARDURADUNAK
Eskualdeko emakume elkarteak bilduko dituen sarea bultzatu. eta	GOIEKI

elkarlanean, lehentasunak jasoko dituen agenda adostu	
---	--

**2.go ESTRATEGIA: Menpekoen (adineko pertsonak, haurrak, etab.) zaintzaren inguruko gogoetarekin hasi eta zerbitzuak egokitu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK
Udal baliabideen erabilera erregulatzerakoan, kontuan hartu menpekoak zaintzen dituzten pertsonen desabantailazko egoera.	GIZARTE ZERBITZUAK
Eskualde mailan, zaintzaren inguruko diagnostikoa egiteko ideia bultzatu.	GOIEKI GIZARTE ZERBITZUAK
Zaintzaileak (bereziki emakume atzerritarrak, zaharrak, etab.) udaletako sail ezberdinetatik antolatzen diren jardueretara joan daitezten menpekoentzako zaintza zerbitzuak eskaini.	GOIEKI GIZARTE ZERBITZUAK KULTURA SAILAK KIROL SAILAK
Menpekoen zaintzarako eta zaintzaileentzako dauden zerbitzu eta baliabideak ezagutzera eman, bereziki eskualdean zaintza lanak egiten dituztenen artean.	GOIEKI GIZARTE ZERBITZUAK ELKARTEAK
Etxean pertsona gaixo bat (gaixotasun kronikoarekin, fase terminalean daudenak, etab). zaindu behar dutenei laguntza zerbitzua eskaini.	GOIEKI GIZARTE ZERBITZUAK
Hautzaindegi zerbitzuen eskaera aztertu eta erantzuna eman.	GOIEKI UDALAK
Ikastetxeetako patioetara sartzen utzi eskola orduetatik kanpo eta opor garaian.	BERRITZEGUNEA IKASTETXEAK
Neska eta mutilak ikastetxeetara eramateko bolondresen poltsa bat osatu. (Nagusilan).	HERRITARRAK ELKARTEAK (Nagusilan)

**3. ESTRATEGIA: Zaintza lanak ezagutzera eman eta baloratu.**

EKINTZA	ARDURADUNAK
Zaintzaren inguruko rally fotografikoa egin.	KULTURA IKASTETXEAK ELKARTEA
Ikastetxeetako ikasleekin zaintzaren inguruan literatur sariketa bat egin adineko pertsonen erretratu autobiografioak jasoz.	KULTURA IKASTETXEAK ELKARTEAK Kimetz eta Asmube

**4.go ESTRATEGIA: Sexuen arteko ezberdintasunen berri emateko eta kontzientzia hartzeko jarduerak egin.**

EKINTZA	ARDURADUNAK
Eskualdeko biztanlei zuzenduriko sentsibilizazio eta informazio kanpaina egin, sexuaren araberako ezberdintasunak agerian uzten dituzten datuak emanez (langabezia tasak, probezia datuak, denboraren erabilerari buruzkoak, soldatak, auto istripuak, etab.).	GOIEKI UDALAK
Sexualitatea eta harreman afektiboak modu autonomoan, berdintasunarekin eta adinaren bidezko taldeekin erabiltzeko proiektuak	GOIEKI ELKARTEAK



berdintasunean eta arduraz bizitzeko tailerrak egin pertsona gazteekin.

IKASTETXEAK  
AISIALDI TALDEAK  
EUSKO JAURLARITZA